

# ELAREN IRITZIA BIZITZEKO GUTXIENEN DIRU SARRERAZ

**Bizitzeko gutxieneko diru sarrerak ez du hobetuko dagoeneko Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta edo Errenta Bermatua jasotzen dutenen egoera.**



[www.ela.eus](http://www.ela.eus)

**ELA**

**EUSKAL SINDIKATUA**

## ELAREN IRITZIA BIZITZEKO GUTXIENEO DIRU SARRERAZ

Espainiar gobernuak 20/2020 Errege Lege-Dekretua, maiatzaren 29koa, onartu du, zeinak Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera (BGDS) ezartzen duen.

Testuak dioenez, BGDS arautzeko arrazoiak izan dira COVID-19aren aurreko pobrezia eta ezberdintasun egoera eta pandemiak eragin duen zaugarritasun ekonomiko eta sozial areagotua, baita lehenago jasotako gomendio europarrak eta hainbat ekinaldi sozial ere. Horregatik, espainiar Konstituzioaren 41. artikulua baitan, xedea da *“errenta maila jakin bat ziurtatzea zaugarritasun egoeran dauden etxe guztiei, edozein dela ere bizilekua. Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomiko gisa onartzen da, ez kotizaziopeko modalitatekoa”*.

Hasieratik bertatik testua hitz eta esaldi biribilez josita dago, baina hauek garatzean hutsean geratzen dira. Helburua omen da *“pobrezia murriztea, batez ere muturrekoa, eta aberastasuna birbanatzea, horrela espainiar guztien arteko benetako berdintasuna iritsiz”*. Haatik, eduki zehatzek erakusten dute dekretuaren zinezko asmoa.

Beste eredu eta une batzutan bezala, desadostasunak agertzen dira prestazio hau ezartzeko unearen egokitasunari eta izaerari berari buruz. Honen ondorioak:

- Eskakizunak oso zorrotzak dira. Jasotzaileei dagokienez, banako eskubidea izatea baztertzen da, eta bizikidetzaren unitatearen sarrerekin lotzen da.
- Prestazioaren titularra izango denaren gaineko kontrol eta exigentzia maila, gehiegizko betebeharrekin eta beti eskubide subjektiboa eten edo iraungitzeko mehatxuarekin, onartezinak dira eta arauaren kutsu ezkorra islatzen dute. Aurreko esperientzien poderioz kasu honetan ere muturreko baldintza horiek hasieratik salatu eta arbuaitzen ditugu.
- Beti bezala, aipatzen da laguntza honek baduela arriskua lan merkaturatzeko borondatea moteltzeko. Argudioak aspaldikoak eta aski ezagunak dira.

Hain zuzen, Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera DSBEaren isla zehatza da, eduki arautzaile eta asmoari dagokionez. Ez da sistema berria, EAEn DSBE eta Nafarroan EB bai baititugu (jakina da ELAk bieie urriegi deritzela; salatu izan ditugu egin diren murrizketa handiak, aplikatzeko irizpide murriztaileak eta hobetzeko proposamenak ere plazaratu ditugu). Gainera, espainiar Estatuko autonomia erkidego guztietan errentak bermatzeko sistemak badira; beraz, BGDS ez da ezer berria, propagandak halakotzat saldu nahi badu ere. Noski, albiste ona da espainiar Gobernuak gutxieneko errenta bermatu bat ezartzea, baina erabakia berandu etorri da.

BGDS areago da gutxienekoa, bizitzeko sarrera baino. Bakarrik bizi den pertsona batentzatko zenbatekoa hilean 461,5 eurokoa da (urtean 5.538€). Zenbatekoa oso urria da, eta pobrezia atalasetik askoz beherago dago. Autonomia erkidego askotan zenbatekoa handiagoa da. Bakarrik dauden pertsonentzako errenta bermaturik apalena Madrilen ordaintzen da: hilean 400 euro. Beraz, bakarrik bizi diren pertsona askorentzako hobekuntza oso txikia edo hutsa izango da. Kide bat baino gehiago duten bizikidetzaren unitate batzuentzako eragina zertxobait handiagoa izango da, baina eskasa edo hutsa beste kasu batzutan. Gobernuak onartu duena zenbateraino den eskasa frogatzen du Lege Dekretuan aipatzen den 2020rako aurrekontuak: urte erdirako 500 milioi euro. Beraz, kontua bazen pobrezia egoera estrukturalak leuntzea, oso motz geratuko da.

## BGDSaren eragina Hego Euskal Herrian

BGDSaren zenbatekoa EAEn eta Nafarroan DSBEak eta EBak ematen duten errenta baino txikiagoa da; ondorioz, BGDSak ez du hobetuko laguntza hori jasotzen dutenen egoera.

Salbuespen bakanak EAEn gertatuko dira:

- 4 heldu edo gehiago biltzen dituzten bizikidetzaren unitateetan, zeintzuetan DSBEa 985 eurokoa den; BGDSarekin 1.015 euro izango dira.
- DSBE jasotzeko hiru urtez errolatuta egon behar da. BGDSak eskatzen du lurraldean urtebetez modu iraunkorrean bizi izana; horrenbestez, DSBEa jaso ezin duten kolektibo batzuei BGDS ordainduko ahal izango zaie.

Lege-Dekretuaren Bosgarren Xedapen Gehigarriak ezartzen du BGDS EAEn eta Nafarroan nola aplikatuko den. Esaten du bi erkidegoek beren gain hartuko dituztela BGDSari buruzko Gizarte Segurantzako Erakunde Nazionalaren eginkizun eta zerbitzuak, "2020ko urriaren 31 baino lehenago adostuko" den moduan. Xedapen honen arabera, egun horretara arte "Estatuko eta dagokion autonomia erkidegoko erakunde eskudunek sinatu beharreko hitzarmen bidez kudeaketa-agindu bat izapideak egiteko". Zer esan nahi du honek?

1. Urriaren 31rako hitzartu behar dela Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak funtzio eta zerbitzuak nola hartuko dituzten beren gain. Beste hainbat kasutan bezala, datak ez du segurtasun handirik ematen.
2. Bitarteko epean kudeaketa-agindu bat emango duela estatuak (hots, transferentziarik gabeko kudeaketa hutsa), eta honen edukiak ere adostu beharrekoak izango dira.

Euskal Herriko erakundeek dirurik aurreztuko ote dute? Mezu ofiziala etengabe ari da esan eta esan, BGDSaren "negoiazioa" zein positiboa den, batik bat EAerako -Nafarroa ere aipatu arren-, izan ere dirua aurreztuko baita. Baina ez da egia Eusko Jaurlaritzak edo Nafarroako Gobernuak aurreztuko dutenik:

- Transferentzia gauzatuz gero (teorian urriaren 31rako, eta hau ez dago argi) egoera gaurko berbera litzateke (kostua osorik geure gain hartu eta Kupo eta Ekarpenean ezer ez ordaintzea, hauek bereganatu gabeko eskuduntzak finantziazten baitituzte). Beraz, ez da ezer aurrezten.

- Transferentzia iritsi bitartean, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak soilik kudeatu egingo dute arlo hau. Zenbateko ekonomikoetan honek esan nahi du bi administrazioek BGDS ordainduko dutela (eta zenbatekoa espainiar Gobernuak itzuli egingo diela). Zenbateko hori DSBE edo EB dela eta gastu txikiagoa izango da. Baina BGDSaren kostu osoaren %6,24 (EAE) eta %1,6 (Nafarroa) ere ordaindu behar izango dute. Eraitza positiboa izango den ala ez ikusteko, Kupo edo Ekarpeneatik ordaindu beharrekoa espainiar Estatuak BGDSagatik ordainduko duena baino gehiago edo gutxiago den ezagutu behar. Kontutan izanik Estatuan diru sarrera maila Hego Euskal Herrikoa baino apalagoa dela, pentsa dezakegu bertan BGDS jasoko duen biztanle portzentajea txikiagoa izango dela, eta ondorioz saldoa negatiboa izango dela.

Kudeaketa hemen egitea hasieratik adostu izanak eragingo du BDS Euskal Herrian jasoko dutenek leihatila bakarrera jo behar izango dutela helburu bera duten bi errentak eskatzeko. Edonola ere, gutxieneko hori alde guztietan eskatu beharko litzateke. Kontrakoa jasotzaileak nahasten ibiltzea da.

Bestalde, ikusirik egun zein egoeratan dauden gizarte zerbitzuak, Lanbide eta arlo honetako erakunde eskudunak, langile eskasia eta lan baldintza kaskarrak -ELAk behin eta berriz salatu

izan duena- praktikan bi errenta ezberdin baina osagarriak kudeatu beharrak karga administratibo handiagoa ekarriko duela.

## Ondorioak

- EAEn eta Nafarroan daukagun gizarte prestazioen sistema ez da nahikoa. BGDS okerragoa izateak ez du hura hobea egiten:
  - o Azken urteetan pobrezia maila areagotu egin da. EAeko Pobrezia eta Gizarte-Ezberdintasunei buruzko Inkestak (PGEI) adierazten du 2018an 130.000tik gora biztanle zegoela pobrezia larrian, 2008 baino %46 gehiago.
  - o Pobrezian jausteko arriskuan dauden pertsonen %66,4ak ez du prestazio sistemaren aldetik arreta egokirik jasotzen. Pobrezian dagoen 3 pertsonetatik bakarra ateratzen da egoera horretatik gizarte prestazioen sistemari esker.
  
- Covid-19aren krisiak gabeziak larriagotzen ditu eta honek aldaketa are premia handiagoa bihurtzen du, baina ez espainiar gobernuak nahi duen moduko aldaketa. Horregatik, urgentea da:
  - o Lanik gabe dauden guztien banako eskubidetzat joko den DSBE edo EB ezartzea. Kasu hauetarako errenta bermatuaren zenbatekoa LGS adinakoa izan behar da.
  - o Eskubide Sozialen Kartak pobreziaren eta gizarte bazterkeriaren kontra bultzatu zuen HLEan jasotako puntuak aintzat hartzea (DSBEaren zenbatekoari dagokionez, bakarrik bizi direnentzat LGSaren %100; %50 gehiago beste pertsona bakoitzeko, gehienez LGSaren bikoitzera iritsi arte).

